

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Garraio Partzuergoa**

Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu berezia ebaztearen iragarkia, 20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorria, Administrazio Bereziko Azpieskala Teknikoari dagokiona (Plangintza Ekonomikoko Goi-mailako Teknikari Informatikoa), praktiketako funtzionario izendatzea eta lan poltsa osatzea.

Oro har jakinarazten da BGPren Batzorde Betearazleak, 2025eko maiatzaren 14ko erabakiaren bidez, honako hau erabaki duela:

Lehenengoa: Administrazio Bereziko Eskalako Azpieskala Teknikoari dagokion eta 20/2021 Legearen 2.1. artikulutik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesu berezia ebaztea (Plangintza Ekonomikoko goi-mailako informatika-teknikaria).

Bigarrena: Iñigo García Mota jauna (NAN zenbakia: ***1807**) praktiketako funtzionario izendatzea, eta behin-behinean Plangintza Ekonomikoko goi-mailako informatika-teknikari lanpostuari atxikitzea (21 kodea duen plaza, A1 sailkapen-taldekoa).

Hirugarrena: Iñigo García Mota jaunari zin-/hitzemate-ekitaldira eta praktiketako funtzionario lanpostuaz jabetzera deitzea, erakunde honetako Idazkaritza Nagusian, izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean. Zin edo promesik ez egiteak edo karguaz ez jabetzeak, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eskubide guztiak galtzea ekarriko du.

Laugarrena: Sonia Cruz López andrea izendatutako funtzionarioaren praktikaldia ebaluatzeaz arduratuko den tutore izendatzea.

Bosgarrena: Praktikaldiak 6 hilabeteko iraupena izango du, kargua hartzen denetik hasita. Probak amaitu eta gauditu ondoren, eta tutoreak txostena egin ondoren, karrerako funtzionarioa izendatuko da eta dagokion lanpostuari eta plazari behin betiko atxikiko zaio. Praktikaldia ez amaitzeak edo ez gauditzeak aipatu izendapenerako edozein eskubide galtzea ekarriko du.

Seigarrena: Praktiketako funtzionarioak atxikiko zaion lanpostuari dagozkion oinarriko ordainsariak eta ordainsari osagarriak jasoko ditu, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 127. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zazpigarrena: Hautaketa-prozesu ebatziaren ondoriozko lan-poltsa osatzea. Poltsa horretan, lanposturik lortu ez arren, oposizio-fasea gauditu duten izangaiak sartuko dira. Erabaki honen I. eranskinean ageri da.

Zortzigarrena: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta BGPren web-orrian argitaratzea. Halaber, erabaki honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio BGPko Batzorde Betearazleari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Hala ere, erabaki hori zuzenean inpugnatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean. Hori guztia bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1988 Legearen 8. eta 46.1 artikuluekin.

Bilbon, 2025eko maiatzaren 15ean.—Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García



I ERANSKINA / ANEXO I
LAN POLTSA / BOLSA DE EMPLEO

Plangintza Ekonomikoko goi-mailako teknikari informatikoa
Técnico/a superior informático/a de Planificación Económica

Hurrenkera Orden	Izen-abizenak Nombre y apellidos	Puntuazioa Puntuación
1.	Ibai Ormaza Saezmira	51.8665 puntu / puntos